

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pello Etxabe Etxabe

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1946)*

Aurkibidea



Biografia



1946an Patxita Etxezarreta kalean jaioa, guraso biak oikiarrak zituen Pellok. Umetan Ubillos jauregian zegoen mesedetako fraideen eskolara joan zen eta 13 urterekin Alondegian kokatzen zen Lanbide Eskolan hasi zituen ikasketak. Ondoren ikasketekin jarraitzeko aukera sortu zitzaion Arrasaten eta han lortu zituen industria-maisu eta peritutza industrialeko tituluak. Zumaian lehenengo eta Arrasaten ondoren ibili zen lanean erretiratu arte. Orduan, hain zuzen, piztu zitzaion Zumaiaiko industrializazioaren inguruan ikertzeko grina eta baita horretarako lan-taldea osatu ere, *Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroa (ZIIZ)* proiektua sortuz. Ikerketa-lan horietan Oikiako historiari buruzko jakinmina ere sortu zitzaion, eta bertako hainbat kontu interesgarri ere aipatu zizkigun elkarrizketan.

Zintak

ZUM-112

- **Proiektua:** Zumaiaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2021-09-16
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Patxita Etxezarreta kalea

- **Erref:** ZUM-112/002
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:01:04. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ekonomia eta industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Patxita Etxezarreta kalean bizi ziren. Herrigunetik aparte geratzen zen garai hartan. Industriagune garrantzitsua zen: bertan zeuden Yreguitarren tailerrak, Otto Holke lantegia... Hotel Uranga ere han zegoen. Guardia Zibilen kuartela ere bazen. Errepide nagusia pasatzen zen bertatik orduan ere eta trafiko asko egoten zen. Ibaia gertu zeukaten eta udan bertan bainatzen ziren. Trena ere pasatzen zen; "beheko estazioa" esaten zioten portuan kokatzen zen geltokiari (gaur egun eraikina oraindik bertan dago).

2. Ikasketak eta lana

- **Erref:** ZUM-112/003
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:05:12. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bi eskola zeuden Zumaian: herriko eskola, Arrangoletan, eta mesedeetako fraideena Ubillos jauregian. Bigarren honetan ibili zen Pello. Gerra ondoren etorritako fraideak ziren, frankismoak ezarriak. Ikasketa guztiak gazteleraz egin zituen. 13 urterekin Alondegian kokatzen zen Lanbide Eskolan hasi zituen ikasketak. Ondoren ikasketekin jarraitzeko aukera sortu zitzaion Arrasaten eta han lortu zituen industria-maisu eta peritutzatza industrialeko tituluak. Zumaian lehenengo eta Arrasaten ondoren ibili zen lanean erretiratu arte.

3. Aisialdiko aukerak gaztetan

- **Erref:** ZUM-112/004
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Gaztetan ez zeukaten aisialdirako aukera askorik. Zumaian bi zinema zeuden: guraso elkarteak apaizetxearen azpian ipini zuen lokala batetik eta Amaia zinema bestetik. Elizako atean filmen sailkapena egoten zen. Luistarren zentro bat zegoen eta han ekintza kulturalak egiten ziren. Oargi elkarteak ere kultura eta mendizaletasuna bultzatzen zituen batez ere, baina baita kirola ere. Atletismo kluba sortu zen Zumaian eta nahiko garrantzia izan zuen garai hartan. Luistarren zentroa non zegoen. Antzerkiak egiten ziren; aurretik Alondegian ere egiten ziren.

4. San Lorente ermita eta Indamendiko gurutzea

- **Erref:** ZUM-112/006
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Mendia eta hondartza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Garizuma garaian ez zen ezer egoten herrian. Urte batean Oargi elkarteak antolatuta San Lorente ermitaren berritzean ibili ziren. Indamendiko gurutzearen eraikuntzan lagundu zuen umea zela. Mendirako zaletasuna izan du.

5. Korrikarako zaletasuna

- **Erref:** ZUM-112/007
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:18:46. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Zumaian 1980 aurretik korrikarako zaletasuna piztu zen. Urte pare bat geroago Pello ere korrika egiten hasi zen lagun batekin eta urte askoan aritu zen. Zumaian "saltaka" esaten zaio korrika egiteari.

6. Frankismoa eta elizaren indarra

- **Erref:** ZUM-112/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:23:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Frankismo garaia. Urte batean Euskal Jaia bertan behera geratu zen. Elizaren indarra.

7. Oikiara trenbidetik oinez

- **Erref:** ZUM-112/010
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Oikiara joaten ziren asteburu askotan, familia baitzeukaten han. Tren geltokia zegoen orduan Oikian eta trenbidetik oinez joaten ziren. Aitaren baserria Sodurutz zen eta amarena Muniosoro. Oikia nola aldatu den. Festetan senideen etxera joateko ohitura handia zegoen. Umetan ez zitzaion gustatzen etxetik kanpo lo egitea. Gari-jotzea Oikian.

8. Zumaiako industrializazioa ikertzen

- **Erref:** ZUM-112/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:27:52. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

2009an Zumaiako industrializazioaren historia ikertzeko talde bat sortu zen (ZIIZ proiektua: Zumaiako Industria-ondarearen Informazio Zentroa). Desagertutako enpresen informazioa biltzen aritu ziren. Hortik abiatuta Oikiako historian sakontzen hasi zen.

9. Oikiako historia: bi familia boteretsu

- **Erref:** ZUM-112/012
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:29:59. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Zumaian zementu naturala edo kare hidraulikoa egiten zen ("hiraulika" deitzen zitzaiona). Oikian zegoen fabrika horietako bat eta horri tiraka, aurretik han beste eraikin batzuk zeudela jakin zuen: burdinola, errotak,

jauregia... Zarauz Gamboa familia zen haien jabea. Oikian bi familia boteretsu zeuden: Igartzatarrak eta Mantzisdortarrak. Bigarren hauen jauregia zen Oikiako etxerik handiena.

10. Oikiako historia: Mantzisdortarren familia

- **Erref:** ZUM-112/013
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:33:48. **Bukatu:** 00:38:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Oikiako Mantzisdortarren historia. Maiorazkoaren bidez beraien ondarea babestu eta handitu zuten belaunaldiz belaunaldi. Emakume hauetako bat Debako Lasaldetar batekin ezkondu zen eta Mantzisdor etxea bi zatitan banatu zen gero. Beste emakume bat Azpeitiko Zuazolatar batekin ezkondu zen eta 8 seme-alaba izan zituzten. Guztiak hil ziren, baita gizona ere, eta emakumea bakarrik gelditu zen. Testamentuan bere ondare guztia Loiolako jesuitei utzi zien. Handik 75 urte ingurura, Espainiako Carlos III erregeak jesuitak Espainiatik kanporatu zituenean, Estatua egin zen ondasun haien jabe. Gero saldu egin zituzten eta Zestoako Balzolatar batek erosi zituen gehienak.

11. Oikia, gune garrantzitsua

- **Erref:** ZUM-112/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:

Zumaiako hiribildua harresiz inguratuta zegoen garai batean. Hortik kanpo 3 auzo zituen: Zubiaurre (San Telmo kalea), Eizagirre (Arritokieta inguruak) eta Narrondo. Hortik aparte gune garrantzitsuenak Oikia, Artadi eta Aizarnazabal ziren (orduan Zumaiako parte zen). Denborarekin nekazaritza eremuko jauntxoen indarra galduz joan zen eta herriguneak garrantzia gehiago hartu zuen.

12. Oikiako historia: Ameriketara ibili ziren jauntxoak

- **Erref:** ZUM-112/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Oikiako jauntxo asko itsas-merkataritzan ibili ziren. Ontzigintzan eta burdingintzan aritzen ziren hemen eta Ameriketara bidaltzen zuten generoa. Garai hartako aberatsak ziren. Francisco Bouquer de Barton, adibidez, ingelesa zen. Alkate izan zen Zumaian eta Ameriketara diru asko egin zuen.

13. Ontzigintza eta merkataritza Zumaian

- **Erref:** ZUM-112/017
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:44:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Arrantzak ez zuen garrantzia askorik izan Zumaian; bai ordea ontzigintza eta merkataritzak. Juan de Olazabalen aita udaletxean idazkari egon zen eta hark esaten omen zuen Zumaian gizon gutxi ikusten zela, denak itsasoan zeudela eta.

14. Zumaiko industriaren bilakaera

- **Erref:** ZUM-112/019
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:44:56. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Zumaian XV-XVII mendeetan une gorena izan zuten industriaurreko bi jarduera dira azpimarragarrienak: ontzigintza eta burdingintza. Baina XVIII. mendearen hasieran ontzigintzak izugarrizko gainbehera izan zuen. Krisi egoera horri buelta ematen hasteko, 1780 urte aldera padurak lehortu eta betetzeko proiektua martxan jarri zen (Basadi zaharra eta Basadi berria), herritarrek lurra lantzeko aukera izan zezaten. XIV. mendean aro berri bat hasi zen zementugintzari esker. Zementu naturala edo kare hidraulikoa ("hiraulika") famatua bilakatu zen. Bi gauza behar ziren: kareharri berezi bat eta hori erretzeko ikatza. Inguruetan bi materialak zeuden. Industria honen inguruan lantegiak sortzen hasi ziren. Zementua garraiatzeko beharrak berriro ere ontzigintzari bultzada eman zion. Zumaiko portuan hobekuntzak egin ziren.

15. Ontzigintza eta motorgintza

- **Erref:** ZUM-112/020
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:50:14. **Bukatu:** 00:54:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak

Laburpena:

Ontzigintza Zumaian XX. mendean. Egurrezko itsasontziak egiten ziren, Balenciaga ontziola burdinazkoak egiten hasi zen arte. Portuan Urolako trenaren geltokia ezarri zen. Belaontzietatik lurrin-makinak egitera pasa ziren ('Eraso y Compañía', adibidez). Geroago gasolinazko motorgintzan garrantzitsuenak 'Yeregui Hermanos' eta 'Carmelo Unanue' izan ziren. Bilakaera guzti honek mekanika arloko ofizioen sorrera ekarri zuen. Gerra aurretik makina-erreminta Otto Holke alemaniarrek ekarri zuen Zumaia.

16. Lanbide Eskolaren sorrera

- **Erref:** ZUM-112/021
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:54:14. **Bukatu:** 00:58:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ordura arte normalena oinarritzko ikasketak egin eta ofizioa lantegietan ikastea zen. Baina garapen industrialak langileen trebakuntza eskatzen zuen eta horrela enpresa batzuen laguntzarekin sortu zuten, 50. hamarkadaren hasieran, Lanbide Eskola edo eskola profesionala Zumaian. Alondegiaren eraikinaren lehenengo solairuan zegoen. Sindikatu Bertikalari lagapena egiteko aukera sortu zen, eta hark bere gain hartu zituen gastuak. Eskola doakoa zen. Aurrerantzean, 'Escuela Sindical de Formación Profesional Virgen de Arrikokieta' izango zen eskolaren deitura. Hala ere, Ofizialtza Industrialeko titulurik ez zuten ematen, eta Pellok arazoak izan zituen gero Arrasaten industria-maisu ikasketak egiten jarraitzeko. Eskolako zuzendaritza, mesedeetako fraideen eskolako arduradunari eman zitzaion.

17. Zubiaurre auzoa eta marea-errota

- **Erref:** ZUM-112/023
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 01:03:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Zubiaurre auzoa zeri deitzen zitzaion. Parrokitik San Telmo kalera joateko zubi bat zegoela uste da. Hor marea-errota bat zegoen eta 1800 aldera arte egon zen martxan. Eraikinak 1940 aldera arte iraun zuen bertan. Ganboatarrrena izan zela uste da, Zumaiaiko familia garrantzitsuenetako bat. Marea-errotaren abantailak eta desabantailak. Bi ehoketa mota egoten ziren: gariarentzat eta artoarentzat. Garai haietan erroten kontrola botereari lotua zegoen. Funtzionamendua azaltzen du: Ardantzabide aldeko lurrak itsasgorarekin urez betetzen ziren eta itsasbeherarekin errota mugitzen zen.

18. Zaku edo jute fabrika

- **Erref:** ZUM-112/024
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:03:24. **Bukatu:** 01:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Garai batean itsasoa Ondartxoraino iristen zen. Zaku edo jute fabrika bat zegoen bertan, Jose Agustin Arbilagak sortua (izatez medikua zen). Zementua edo "hiraulika" garraiatzeko kupelak erabiltzen ziren eta horregatik Zumaian baziren 10-12 upelgile. Zakuek upelak ordezkatu zituzten. Arbillaga hil zenean zakugintza bertan behera gelditu zen baina beste lantegi batzuei alokatu zitzairen eraikina. Eraikinaren aurrealderaino iristen zen itsasoa. Betelanak 1915 inguruan hasi ziren.

19. ZIIZ proiektuaren helburua

- **Erref:** ZUM-112/026
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:06:33. **Bukatu:** 01:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

2009an hasi zen talde bat Zumaiaiko industrializazioa ikertzen. ZIIZ proiektua deitu zioten (Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroa). Helburua gelditzen den industria ondarea babestea da. Gelditzen diren arrastoak Narrondoko zementu fabrikarenak dira. Desagertutako lantegiak.

20. "Zumaia zementua"-ren garrantzia

- **Erref:** ZUM-112/027
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:08:32. **Bukatu:** 01:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Zumaia zementu naturala edo "hiraulika" oso ona zen kostako obretarako, azkar gogortzen zelako. Madrileko Isabel II kanala egiteko Zumaia zementua erabili zen. "Cemento Zumaya" izena hartu zuen eta famatua egin zen. 1860 aldera Arroan egin zen ordura arte egondako fabrika modernoena. Eusebio Gurrutxagak ipini zuen.

21. Zementu fabriken bilakaera

- **Erref:** ZUM-112/028
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:11:37. **Bukatu:** 01:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Hasierako zementu fabrikak labeak besterik ez ziren eta inguruko burdinola zaharren azpiegiturak aprobetxatzen zituzten zementua ehotzeko. Olak non zeuden. Behin ehotuta, zementua labeetara gurdiz garraiatu behar izaten zen. Fabriketako nagusiek baserritarrekin kontratuak egiten zituzten horretarako. 'Corta y cía' izan zen prozesu guztiak bateratu zituen lehen fabrika, Agoten. Geroago Eusebio Gurrutxagaren lantegia etorri zen.

22. Geologia erabakigarria zementugintzaren sorreran

- **Erref:** ZUM-112/029
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:14:29. **Bukatu:** 01:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Iraetan ola garrantzitsu bat zegoen, Granadako kondearena. Han egiten ziren, adibidez, merkurioa Ameriketara garraiatzeko burdinazko edukiontzia. Ingeles batzuk etorri ziren 1835 inguruan hor lan egitera eta haiek ikusi zuten

inguru hau zementua egiteko geologikoki oso egokia zela. Batetik, "tuparria" esaten zitzaion kareharri berezia zegoen; bestetik, hori erretzeko lignittoa (ikatz) ere topatu zuten.

23. Zementugintzako lantegi garrantzitsuenak

- **Erref:** ZUM-112/031
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:18:29. **Bukatu:** 01:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ekonomia eta industria

Laburpena:

Arroan ziren fabrika garrantzitsuenak: 'Corta y cía', adibidez, Agoten. Beduako fabrika berezia zen. Uriartetarrena zen eta gerora 'Uriarte, Corta y Zubimendi' bihurtu zen. Fabrika hauetako nagusi guztiak Zumaiko alkate izan ziren.

24. Dike lehorreko ontziola

- **Erref:** ZUM-112/038
- **Iraupena:** 0:06:52. **Hasi:** 01:32:14. **Bukatu:** 01:39:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Garai batean, itsasoa beheko tren geltokia dagoen lekuraino iristen zen. Horren atzean dike lehorreko ontziola bat egon zen. Urte gutxi iraun zuen, seguru asko Urolako trena beheko estaziora ekartzeko proiektua sortu zenean desagertu zen. Gero Yereguitarrak eta beste hainbat egon ziren leku horretan. Etxeak egiten hasi ziren garaian azaldu omen ziren dike horren arrastoak, baina ez zen hari buruzko informaziorik jaso. Patxita Etxezarreta kalea eta haren inguruak agertzen diren 1922ko plano batean ageri da dike lehorra. Tolosako artxiboan izan zuen honen berri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com